

DBH1_Balio Etikoak_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea | Joseba Meabebasterretxea Arrona | Maila | DBH1 | Ikasturtea | 2021/22

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Balio Etikoak ikasgaiaren helburu nagusia hauxe da: ikasleak hainbat gai garrantzitsuren inguruan gogoeta kritikoa egiteko eta arazoak konpontzeko gaitasunak bereganatzen hastea.

Gai garrantzitsu horiek dira: ikaslearen auto-pertzepzioa eta bizi-proiektua, bere emozioak eta balioak, eta gizartea.

Ikasleak gaitasun pertsonalak eta sozialak bereganatzen dituen heinean, hurrengo urteetan aurkeztuko zaizkion erronkei aurre egiteko ezinbesteko bitartekoak praktikara eramateko moduan egongo delakoan gaude. Ikasgai honek astean bi orduko iraupena du.

Bestalde, **Covid-19**aren ondorioz sortutako salbuespen egoera dela-eta, Balio Etikoak ikasgaiaren ardura duen Filosofia Mintegiaren erabakiz, ebaluazio irizpideak eta metodologia moldatu ahal izango dira egoerak hala eskatzen badu. Gainera, Hezkuntza Departamentuak egoerari aurre egiteko bi plan osatu ditu aurrez aurreko irakaskuntza ziurtatzeko eta berau posible ez denean etxetik lan egin ahal izateko:

- 1) [Kontingentzia Plana](#)
- 2) [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#)

Honakoa da ikasgaiaren irakaslearen helbide elektronikoa: jmeabebarr@educacion.navarra

OINARRIZKO GAITASUNAK (Gaitasun denak landuko dira unitate guztietan)

1) Hizkuntza komunikazioa.		X	
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.		X	
3) Gaitasun digitala.		X	
4) Ikasten ikastea		X	
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.		X	
6) Ekimena eta ekintzailtza.		X	
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.		X	

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

“Balio Etikoak” ikasgaiaren helburu nagusia ikasleak bere balioak iritzi zorrotz, koherente eta arrazionalen bidez oinarritzeko bitartekoak sortzea da, hartuko dituen erabakiak egokiak izan daitezen eta bere jokabidea, bizitza pertsonala eta harreman sozialak gida ditzaten.

Ikasgaiaren helburu orokorren inguruko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi: Mintegiko programazio didaktikoa eta [Nafarroako Aldizkari Ofiziala](#), 2015eko uztailaren 2a, osteguna, 127. zenbakia. **Legezko erreferentzia:** ik. 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa.

EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

1.multzoa: PERTSONAK GARA eta GIZAKIAREN JOKABIDEA gaiekin lotutako unitate didaktikoak. Honakoa da unitateen sekuentziakoa:

- Gizakiaren izatea
- Nortasuna eta balioak
- Adimen emozionala

2.multzoa: GIZARTEKOTIAK GARA eta ELKARBIZITZA gaiekin lotutako unitate didaktikoak. Honakoa da unitateen sekuentziakoa:

- Gizartearen beharra
- Elkarbizitza
- Gizarte-trebetasunak

3.multzoa: ETIKA eta BALIO ETIKOAK gaiekin lotutako unitate didaktikoak. Honakoa da unitateen sekuentziakoa:

- Moraletik etikara
- Balioak oinarri
- Balio moralak

Bestalde, **Bakea eta Elkarbizitza Programa, Baterako Hezkuntza, Elkartasun Eskolak eta [Iturrama Berdea](#)** proiektuak landuko dira ekimen desberdinen bidez.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
22	Lehenengo multzoa	22	Bigarren multzoa	22	Hirugarren multzoa

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Metodologia: Irakaslea edukien eta landu beharreko kompetentzien inguruko azalpen teoriko eta praktiko guztiak ematen saiatuko da eta baita dagozkien jarduerak edota prozedurak lantzen ere. Ikasgelan landutako eduki teorikoak aldizkako azterketa baten bidez ebaluatuko dira, horrez gain, ikaslea klasean landutako eduki teorikoak eta gaitasunak aplikatzeko gai dela ziurtatzeko proiektuei edota lan praktikoei garrantzia berezia emango zaie. Ohiko jardunean jarduerak ahoz edota idatziz, eta bakarka nahiz taldeka burutuko dira. Talde jardueretan ikasleek IK/KI (Ikasteko kooperatu/Kooperatzen ikasi) metodologia jarraituko dute.

Baliabideak eta testu liburua: Ikasleak testuliburu gisa, Vicens Vives argitaletxeko liburua erabiliko du: [C. PRESTEL & X. MARTÍ, Balio Etikoak. DBH 1, 2017. ISBN: 978-84-682-5055-7]. Gainera, ikus-entzunezkoen erabilera ere programazioan aurreikusten da. Etikarekin edo landutako gaiekin lotura duten bideo laburrak, dokumentalak edota pelikulak erabiliko dira ikasgelan.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluazio bakoitzeko notaren osaketa:

- **Proiektua eta lanak:** ebaluazioan jasotako edota erregistratutako lanak eta proiektuak (bakarkako lanak, talde-lanak, ahozko aurkezpenak...) notaren **%40**ko balioa izango dute.
- **Azterketa:** irakasleak eduki teorikoen inguruko azterketa bat jarriko du, ikasleek edukiak ongi barneratu dituztela frogatzeko. Azterketa honek ebaluazioko notaren **%40**ko balioa izango du. Batz bestekoa egin ahal izateko azterketan gutxieneko kalifikazioa (**4**) lortzea ezinbestekoa da, gutxiago izanik ebaluazioa ez da gaindituztat emango.
- **Jarrera:** Ebaluazio bakoitzean notaren **%20**ko balioa izango du ikasleak ikasgaiarekiko adierazten duen jarrerak (parte-hartzea, interesa, besteekiko errespetua, banaturiko materialen zainketa, etxeko lana etab.).

Ohar garrantzitsuak:

- Epez kanpo aurkeztutako lanek asko jota 5 bat jasoko dute notan. Irakasleak zehaztuko du noiz arte aurkeztu daitezkeen berandu emandako lanak (**derrigorrez aurkeztu behar baitira**).
- Ekaineko azken nota hiru ebaluazioetako noten batz bestekoa izanen da. Ekainean ikasgaia gaindituztat emango da hiru ebaluazioetako noten batz bestekoa 5 batera iristen bada, beti ere bi ebaluazio gutxienez gainditu baldin badira (Bi ebaluazio suspenditu eta berreskuratu ez baldin badira, ez da batez bestekoa egingo).

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ikasleak eskuratu beharreko **gutxieneko helburuak** hauek dira:

- Eduki teorikoak, frogetan/lanetan/ariketetan, zuzenak eta gramatikalki ondo adierazita egotea.
- Informazio iturri ezberdinak erabiltzen ikasten hastea modu zuzen eta autonomoan.
- Landutako eduki teorikoak sintetizatzen jakiten hastea.
- Landutako eduki teorikoak aztertzen jakiten hastea.
- Landutako kontzeptu teorikoak partekatzen jakiten hastea.
- Sortze-lana egiten ikasten hastea, norberaren ideiak eta ikasitakoa uztartuz hausnarketa pertsonalaren bitartez.
- Gai baten inguruan argudiatutako iritzia ematen ikasten hastea eta, aldi berean, besteen iritzia begirunez entzuten eta ulertzen ikasten hastea.

Zuzenketa irizpideak eta borobiltzea:

Ebaluazio bakoitza gainditzeko eta ekainean ikasgaia gainditzeko, beharrezkoa izanen da irakasleak agintzen dituen lanak, gogoeta pertsonalak, galdetegiak etab. aurkeztuak izatea eta eginen diren froga guztien batezbestekoan 5 bat lortzea.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

*** EBALUAZIOETAKO ERREKUPERAZIOAK**

Errekuperazioa derrigorrezkoa da ebaluazioa suspendituz gero. Errekuperazioa ebaluazioa pasa eta gero eginen da lehen bi ebaluazioetan. Aldiz, 3. ebaluazioa suspendituz gero, errekeruperazioa Nahikotasun probetan eginen da.

*** NAHIKOTASUN PROBA**

Ebaluazioko errekeruperazio arrunta gainditu ezean, ikasleak Nahikotasun Proban gainditu gabeko ebaluazioa gainditzeko aukera izanen du. Nahikotasun proban 3. ebaluazioko errekeruperazio arrunta suspendituz gero, ekaineko Ez Ohiko Deialdian berreskuratuko da.

*** EZ OHIKO DEIALDIA**

Ekaineko Ez Ohiko Deialdian, errekeruperazio arruntetan edota Nahikotasun proban suspenditutako ebaluazioak ebaluatuko dira. Kasu guztietan, ikasleak gaizki egin dituen edota bete ez dituen lanak/frogak/ariketak edota gainditu gabeko azterketak egin beharko ditu, gainditu gabe duen/dituen ebaluazio edota unitate didaktikoekin lotuta beti.

Berreskurapen azterketak edota berregin beharreko proiektu guztiak nahikotasun maila kontuan hartuz izanen dira (hots, gutxieneko edukiak oinarri), dena den, kalifikazioa 5 bat izan daiteke gehienez jota.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ikasgai honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik.

